

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2019KO ABENDUA


Industriaren urtea % 4,2ko hazkundearekin itxi da 2019ko abenduan Euskal AEn

Industriaren balantzeak % 1,3ko hazkunda izan du 2019an, aurreko urtearekin alderatuta

Euskal AEko industri produkzioa % 4,2 igo zen 2019ko abenduan, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, lan-egutegiaren termino homogeneoetan; bosgarren hilabetez jarraian hazi zen, Eustatek landutako datuen arabera. 2019ko hamabi hilabeteetako balantzea % 1,3ko hazkunde metatuarekin itxi da, 2018ko aldi beraren gainean.

Urtaroen eragina zuzenduta, % 1,9 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2019ko azaroarekin alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



2019ko abenduko indizearen bilakaera, 2018ko abendukoarekin alderatuta, positiboa izan da industria-sektore handietan helburuaren arabera, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* kasuan izan ezik. Hala, *Ekipo-ondasunak* % 12,7 igo dira, *Energia* % 4,7 eta *Bitarteko ondasunak* % 0,6. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 4,5 egin dute behera, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* beherakadaren ondorioz (% 5,8 jaitsi dira); *Kontsumo-ondasun iraunkorrek*, berriz, % 2,5 egin dute gora.

Aldiz, 2019ko abenduko hilabete arteko aldakuntzak, 2019ko azaroarekiko, *Energiaren* sektorean soilik du zeinu positiboa, non % 2,2 hazi baita. *Ekipo-ondasunak* % 5,7 egin dute behera, *Bitarteko ondasunak* % 0,6 egin dute behera eta *Kontsumo-ondasunak*,

oro har, % 2,5 jaitsi dira; izan ere, *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 4,1 jaitsi dira, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 2,1.

Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2019ko abenduan urte arteko hazkunderik handienak izan dituztenak hauek dira: *Garraio-materiala* (% 29,7), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 8,2) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 6,8).

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	6,8
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	8,2
09 - Kautxua eta plastikoak	0,2
13 - Makineria eta tresneria	1,1
14 - Garraio-materiala	29,7
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-2,2
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-1,0
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-5,4

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Aitzitik, urte arteko beherakadak gertatu dira sektore garrantzitsu hauetan: *Zurgintza, papera eta arte grafikoak*, % 5,4 jaitsierarekin; *Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak*, % 2,2ko jaitsierarekin urte artean; eta *Material eta ekipo elektrikoa*, % 1,0ko jaitsierarekin.

Lurraldearen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen abenduko urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan: Araban % 10,6 igo da, Bizkaian % 3,1 eta Gipuzkoan % 1,8.

Industria-jardueraren balantzea 2019an: Energia elektrikoa, gasa eta ur-lurruna, hazkundearen buru, % 14,5eko igoerarekin

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen 2019ko balantzea aurreko urtearekin alderatuta % 1,3 igo da.

Sektoreei dagokienez, nabarmentzekoa da bilakaera *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* delako sektorean (% 14,5ko hazkundera urteko metatua), eta ondoren *Material eta ekipo elektrikoan* (% 5,3) eta *Altzariak eta beste manufaktura-industria batzuk* izenekoan (% 3,7). Era berean, positiboki itxi dira sektore garrantzitsu batzuk, hala nola *Kautxua eta plastikoak* (% 1,5), *Garraio-materiala* (% 0,3) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 0,1).

Alderantzizko norabidean, *Kokeriak eta petrolioa fintzea* (-% 15,3), *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak* (-% 3,8) eta *Industria kimikoa* (-% 3,1) izan ziren urtean zehar portaera okerreña izan zuten sektoreak.

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera azterketan, *Energiak* % 5,6ko hazkunde metatua izan du, *Ekipo-ondasunek* % 1,7 egin dute gora eta *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 1,9ko igoera izan dute. Azken horien barruan, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* hazkundera % 2,6koa izan da, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrena* % 1,7koa. *Bitarteko ondasunak* dira 2019an jaitsiera izan duten bakarrak (-% 0,3) 2018arekin alderatuta.

2019an metatutako aldaketak desberdinak izan dira lurraldeetan: Bizkaian % 4,2 igo da eta Gipuzkoan % 0,5; Araban, berriz, % 1,9 jaitsi da.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2019ko Abendua

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Abe2019 / Abe2018	A(Abe2019) / A(Abe2018)(*)	Abe2019 / Aza2019	Aza2019 / Urr2019
Indize orokorra				
Euskal AE	4,2	1,3	-1,9	-0,1
Araba/Álava	10,6	-1,9	-3,1	1,0
Bizkaia	3,1	4,2	-1,5	-1,5
Gipuzkoa	1,8	0,5	-1,6	0,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-4,5	1,9	-2,5	-0,7
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	2,5	2,6	-4,1	3,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-5,8	1,7	-2,1	-1,7
Ekipo-ondasunak	12,7	1,7	-5,7	2,0
Bitarteko ondasunak	0,6	-0,3	-0,6	0,8
Energia	4,7	5,6	2,2	-7,8

(*) 2019ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2018eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62